



UDALERRIA ETA MUGIKORTASUN SEGURUA

SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK
ETA BALIABIDEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuor detza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico



Aurkezpena

3

01. Zer jakin behar dut mugikortasun seguruari buruz?

4

02. Zer ari gara egiten gure udalerrian?

6

03. Nola uztartzen dira mugikortasun seguruko jarduerak udalerrriaren antolaketan?

6

04. Zer agentek har dezakete parte?

7

05. Jardueren proposamen zehaztua sailaren arabera

Udalerriaren barne-antolaketa:

Alkatetza

Eremu publikoak:

Ingurumena

Hirigintza

Herritarrak:

Gizarte Ongizatea

Kultura

Kirolak

Hezkuntza

Gazteria eta aisialdia

Adinekoak

Segurtasuna

8

06. Zer beste baliabide daude nire eskura?

Hezkuntza-sistema
Adinekoak
Biztanleria, oro har

24

Aurkezpena



2015-2020 aldirako Bide Segurtasun eta Mugikortasun Seguruko Plan Estrategikoaren helburu nagusia da Euskadiko bide-segurtasunaren problematikaz jabetzea, gure errepideetako ezbehar-kopurua murrizten laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Trafiko Zuzendaritzak hainbat aldiz nabarmendu dugu aldaketa kultural bat ezinbestekoa dela, gizarte-eredu seguruago eta jasangarriago bat eraikitzeko. Bide publikoetako erabiltzaile gisa hartzen ditugun arriskuez jabetu behar dugu eta erantzunkidetasunez jokatu behar dugula argi eduki.

Aipatutako aldaketa kulturala lortzeko, ezinbestekoa da erakundeen inplikazioa eta laguntza, eta arlo horretan garrantzi berezia dauka udalerrien inplikazioak. Mugikortasun segurua eta jasangarria bilatzen duen eredurantz jotzeko, beharrezkoa da udalek mugikortasuneko eta bide-segurtasuneko planak lantzea. Zuen errealitateetara egokitu behar dituzue planok eta inplikaturako guztien iritzia eta parte-hartzea kontuan hartu.

Dokumentu honek gida praktiko lagungarri bat eman nahi dizue, zuen inguruan bide-segurtasuna planifikatzeko. Mugikortasun seguru eta jasangarriaz arduratzen eta kezkatzen zareten pertsona guztiei laguntzeko tresna, zeharkako ikuspegia txertatu dezazuen: hezkuntzaren alorretik, eremu sozial eta kulturaletik, ingurumenaren ikuspegitik, eta kirol zein hirigintzaren ikuspegitik.

Partekatzen dugun aldaketa kulturala bultzatzen lagundu nahi dugu. Horri esker, Euskadin mugikortasun seguru eta jasangarriko parametroak lortuko ditugu, 2015-2020 Plan Estrategikoaren barruan; guztia ere, ezbehar-kopuruen adierazle guztiak ahalik eta gehien murriztea lortzeko.

Dokumentu hau lagungarri izango zaizuelakoan nago, eta espero dut sail hau eta zuen udal-zerbitzuen arteko komunikazioa lotzeko erreminta eraginkorra izatea.

Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
SEGURTASUNEKO SAILBURUA

01. Zer jakin behar dut mugikortasun seguruari buruz?



Mugikortasun segurua terminoak gauza asko dakartzkigu burura: zebrabideak, semaforoak, trafikoaren arautzea... Era berean, irudi asko iradokitzen dizkigu, hala nola, ibilgailu pribatuaren erabilera arduratsua sustatzeko kanpainak, ertzainak eta trafiko arloko langileak ikastetxeetan hurrei prestakuntza ikastaroak ematen, harrapatzeen arazoaren inguruan adinekoekin egindako informazio-saioak, eta abar.

Mugikortasun segurua kontzeptu zabal eta konplexua da eta balio asko hartzen ditu bere gain: prebentzioa, ardura, elkarbizitza, norberaren eta besteen bizitzarekiko errespetua... Horregatik, mugikortasun seguruaz ari garenean, osasuna sustatzeaz ari gara, eta trafiko-istripuak eta horietan inplikaturik suertatzen diren lagunak gutxitzeaz, eta istripuak pairatu dituzten familien sufrimendua gutxitzeaz, eta baita trafiko istripuek suposatzen duten izurrite isilaren gastu ekonomiko eta sozial handiak txikiago bihurtzeaz ere.

Bestalde, mugikortasun segurua eta mugikortasun iraunkorra gizarte- eta udal-eztabaidetan gero eta presenteago dauden gaiak dira. Izan ere, biek ala biek kezka eta eztabaida handiak sortzen dituzte. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, Trafiko Zuzendaritzaren bitartez, ahalegin guztiak egiten ari da trafiko istripu larriak eta, bereziki, horietan hilik edo larriki zauriturik suertatzen diren lagunen kopurua txikitzeko. Ahalegin horien adierazle da **Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako 2015-2020 aldirako Plan Estrategikoa**.



DOKUMENTUAN SARTU

Plan estrategiko hau koherentea da Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2010.ean hartutako erabakiarekin. Orduan hamarkada hau Bide Segurtasunerako Ekintzen Hamarkada izendatu zuten. Etxetik gertuago ere onartu dira antzeko planak helburu berarekin eta joera-marrak eta helburu zehatzak ezarri dira.

2020rako Europar Batasunak lortu nahi dituen helburuen artean, esaterako, errepideetan hildako pertsona-kopurua 2010ekoaren erdira jaitea da.



DOKUMENTUAN SARTU

Europar Batasunak, halaber, helburuak ezarri ditu kolektibo ahulenentzat; adibidez, haurrak lotzeko sistema ez erabiltzeagatik hiltzen diren umeen kasuak guztiz desagerrarazi nahi ditu. **Bereziki hiri eta herriguneei dagozkien helburuen artean, harrapatzeengatik heriotzak % 30 jaitea eta turismoetan hildako pertsonen kopurua zero izatea dauzkagu.**

Arazoak al daude nire udalerrian mugikortasun seguruarekin?

Instituzio-esparruetatik mugikortasun seguruaren inguruan ikerketa eta proposamen asko egin diren arren, kontzeptua ez da guztiz errotu udal-politiketan eta tokiko gobernuen eztabaidetan, batik bat udalerri ertain eta txikietan. Izan ere, udalerri horietan trafiko-istripuak eta berauetan hil edo larriki zauritutako pertsonak sarritan zero dira, eta horrek biztanle eta agintarien artean mugikortasun segurua lehentasunezko gai bat ez delako ustea zabaltzen lagun dezake.


Uste horiek partzialak izaten dira. Izan ere, udal-politikaren egunerokotasunean, erraza da ahaztea trafiko-istripuetan hil edo larriki zauritutako pertsonak, istripua errepidean gertatu arren, nonbait bizi direla, gure herrikideak direla, auzokoak, lagunak eta senideak. Istripua edonon gertatuta ere, pertsona horiek eta beraien familiak gure udalerrietako bizilagunak dira eta, horrexegatik, hain urrunekoak diruditen istripu horien prebentzioa gizarte guztiaren erantzukizuna da, orokorrean, eta erakundeena modu partikularragoan.

Azken urteotan, Euskadin trafiko-istripuetan hilik edo larriki zauriturik suertatu diren lagunen kopuruak behera egin du nabarmen.


Hori poliki eman den kultura- eta jarrera-aldaketaren ondorio da, eta baita prebentzioa sustatzeko martxan jarri diren politika publiko eta kanpainen ondorio ere. Hala eta guztiz ere, zifra baxuagoak ezingo dira inoiz gauza positibo bezala hartu, hildakoez eta zaurituez ari baikara. Edonola ere, hoberako joera hau motel doa aurrera eta prebentzio-politikei eutsi behar zaie, epe motzera zein epe luzera, gobernu-maila guztietan.

Ez dago dudarik horretarako aldaketa bat, eraldaketa bat beharrezkoa izango dela. Neurri hertsatzaileak baztertu gabe, badirudi argi dagoela eraldaketa hori ezin dela gertatu trafikoaren inguruko kultura aldatzen ez badugu. Horretarako, hezkuntzan eta kontzientziazioan jardun behar dugu, giza-faktorean jardun azken finean, faktore hori presente baitago kausa zuzen bezala trafiko-istripu gehienetan. Guztiok bultza dezakegu aldaketa sozial hori, baita udalerrietatik ere.

Biktimak eragin dituzten istripuen bilakaera EAEn 2001-2014



EAEn trafiko-istripuetan 2001-2014 bitartean hildakoen kopuruaren bilakaera



02. Zer ari gara egiten gure udalerrian?



Udaletatik egunero egiten da lan herritarrei zerbitzuak emateko, bertan bizi eta lan egiten duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko plangintzak egiten dira, eta ekintza desberdinak diseinatzen dira garapen jasagarria, segurtasuna, konforta eta abar ardatz hartuta. Mugikortasuna hobetzeari dagokionez, udalerri askok bidearen elementuak mantendu eta erabilerarako ordenantzak ezartzeari eman diote lehentasuna. Alabaina, honekin batera maiz

herritarren hezkuntza eta kontzientziazioa alde batera utzi dira eta ez zaie prestakuntzarik eman norbere babesa, elkarbizitza edo ingurumenarekiko errespetua bezalako balioetan. Bidegurutze bat biribilgune bategatik ordezkatzeari ona eta komenigarria da, dudarik gabe, baina ez da nahikoa udalerrian inor hil edo zaurituko ez dela espero izate hutsarekin. Mugikortasun seguru eta jasagarriaren erronkari ausardiaz eta era zuzenean heldu behar diogu, pertsonengan eta horien jarrera eta balioetan oinarritutako eredu batekin.

Geure buruari Zergatik izaten ditugu istripuak? galdetzen diogunean, erantzunak garbi utziko digu ahaleginak pertsonen jarreraren aldaketa lortzera bideratu behar ditugula. Trafiko Zuzendaritzatik proposatzen dizuegun interbentzio-eredua honako hitz-gakoen bidez laburbil genezake: ardura, autonomia, errespetua, elkarbizitza, arriskuaren pertzepzioa, zuhurtzia, emozioen hezkuntza eta erabakiak hartzea.

Zein da gure udalerri-eredua? Nola txertatu bertan mugikortasun segurua?

Bi galdera hauek ezinbestekoak dira zerbitzu-proposamenak balioen arabera sailkatzeko.

Udalerri askotan Mugikortasun-Planak daude indarrean. Dokumentu horiek abiapuntu egokia dira eta askotan 21 Agendarekin eta udaleko ekintza- eta garapen-planekin koordinatzen dira. Mugikortasuna erraztu eta gutxitzeko neurri zehatzen ardatz nagusia aparkatzeko arazoak konpondu eta trafikoa eta seinaleak ordenatzea izaten da. Zenbaitetan, mugikortasun seguruaren inguruko ekintzak ere egiten dira, gehienetan ikastetxeetan eta prestakuntza jaso duten udaltzaingoko kideek ematen dituzten eskola-saioekin.

Udalerrietako planek ez dute beraz beharrezkoa den aldaketa sozial sakona eragiten, hiri seguru eta jasankor batean oinarritutako eredu integral bat eraikitzeko. Izan ere, plan askok elementu teknikoak ardatz hartuta konpondu nahi dute mugikortasunaren arazoa, giza-elementuak lehenetsi beharrean.

Gure helburua da indarrean dauden planei, udalerrian dagoeneko existitzen diren dokumentuei, bestelako ikuspegi eta ekintzak gehitzea. Ekintza horien protagonistak izango dira mugitzen diren pertsonak, mugikortasunaren subjektu aktiboak, alegia.

03. Nola uztartzen dira mugikortasun seguruko jarduerak udalerriaren antolaketan?

Badira gaur egun Euskadiko eta euskal udalerrietako mugikortasun arazoak konpontzen saiatzen diren gidak eta planak, baina planteatutako konponbideek bideari eta zaintza- eta kontrol-neurriei baino ez diote erreferentzia egiten gehienetan.

Udalerri bakoitzak bere antolamendua du, biztanle-kopuruaren, zinegotzi-kopuruaren eta lurraldearen berezitasunen arabera. Aniztasun hori kontuan hartuz, eta dokumentu hau ahalik eta udalerri gehienentzako

erabilgarria izan dadin, erraz identifika daitezkeen hiru ardatz nagusiko antolamendu-eredu bati egiten diogu erreferentzia dokumentu honetan:

Udalaren barne-antolaketa.
Udalerriaren eta espazio publikoaren antolaketa.
Herritarrak.

Udalerriaren tamainaren arabera, ardatz hauetako bakoitza hainbat zinegotziren ardurapean egon daitezke, eta alderantziz. Beste kasu batzuetan, baliteke alkatea bera izatea hiruak kudeatu eta antolatzen dituenak.

Eskema honi jarraiki, zure udalerrian susta edo antola ditzakezun ekintzak hiru eremutan sailkatzen dira:

Hiru eremuotan bildutako ekintzetako askok mugikortasun seguru eta jasankorraren ikuspegia eta printzipioak barne har ditzakete, baina seguruarenik herritarrei zuzendutakoak dira ezagunenak.

Udalerriaren barne-antolaketa:

Alkatetza

Eremu publikoak:

Ingurumena

Hirigintza

Herritarrak:

Gizarte Ongizatea

Kultura

Kirolak

Hezkuntza

Gazteria eta aisialdia

Adinekoak

Segurtasuna

04. Zer agentek har dezakete parte?



Orain arte irakurri duzunarekin pertsona ardatz duten mugikortasun seguruko ekintzak egiteko beharraz eta eguneroko mugikortasunarekin lotutako balioei buruzko hausnarketa errazteko beharraz konbentzitu bazaitugu, ulertuko duzu udaleko sail guztiek, udalerriko erakunde guztiek eta baita edozein herritarrek ere har dezaketela parte mugikortasun seguruko agente bezala.

Zure udalerriaren antolaketa ez da garrantzitsua, sail eta zerbitzu guztiek egin ditzakete mugikortasun seguruko ekintzak.

Edozein udal zerbitzu edo erakunde izan daitezke, beraz, agente eta horrek erakusten du ez dela nahitaezkoa espresuki mugikortasun segurua lantzen duen sail bat edukitzea eta beharrezkoa dela mugikortasuna modu transbertsal eta integratuan lantzea udalaren programa guztietan.

Sail guztiek susta dezakete mugikortasun segurua, ohiko jardueretan edo dagoeneko programatua dagoen jarduera batean beronen printzipio eta balioak txertatuz. Ikus dezagun adibide bat: udalak adinekoentzako txango bat antolatzen badu, arduradunek minutu batzuk erabil ditzakete ibilaldia hasi aurretik kalea edo errepidea gurutzatzerakoan edo autobusera igo eta jaistean kontuz ibiltzea garrantzitsua dela azaltzeko.

Hala eta guztiz ere, argi dago udaletik lan-ildo transbertsal bat modu egoki eta eraginkorrean antolatzeko beharrezkoa dela lider bat izatea, prozesua sustatu eta dinamizatzeko eta sail guztiei edozein jarduera antolatzerakoan mugikortasun seguruaren betaurrekoak jartzen laguntzeko.

Jardueren proposamen zehaztua sailaren arabera

Segidan, sail bakoitzean egin daitezkeen jarduera zehatzak eta gomendioak aurkeztuko ditugu. Proposamen hauek ekintza berriak antolatzeko edo dagoeneko martxan dauden plan eta jardueretan mugikortasun segurua txertatzeko balio dezakete.

Sail bakoitzarentzat fitxa bat dago jarduera batzuekin.



Udalerriaren barne-antolaketa:

Alkatetza



Eremu publikoak:

Ingurumena

Hirigintza



Herritarrak:

Gizarte Ongizatea

Kultura

Kirolak

Hezkuntza

Gazteria eta aisialdia

Adinekoak

Segurtasuna

Gure barne antolakuntza:



Alkatetza

Alkateak du gobernu-programaren lidergoa eta berak hautatzen du udalaren barneko funtzionamendua eta antolaketa. Beraz, alkateak mugikortasun segurua susta dezake sail guztietan eta martxan dauden programetan.

Mugikortasun segurua eta alkatetza?

Alkatetzak udal-jardueren osotasunaren ikuspegi orokorra du eta, hori dela-eta, udaleko sailetan mugikortasun segurua txertatzeko eta koordinatzeko kokagune ona da. Era berean, posizio ezin hobean dago proiektu integralak bultzatzeko (adibidez, sustatu nahi duen udalerrri mota).

Badaude kontuan hartu beharreko ikuspegi estrategikoak. Horietako bat da Francesco Tonuccik proposatutako "haurren hiria", Tokiko Agenda 21en printzipioak barne hartzen dituenak.



DOKUMENTUAN SARTU

Gainera, alkatetzak harremana du inguruko beste udalerrri eta administrazioekin eta horrek erraztasuna ematen dio mugikortasun seguruko udalaz gaidiko proiektuetan era aktiboan parte hartzeko, dela Eusko Jaurlaritzarekin, dela Mankomunitateekin edo antzeko arazoak dituzten edo inguruan kokatuta dauden udalerriekin.

Azkenik, alkateak foro eta bilera jakin batzuetan parte hartzeko aukera du, eta gainera harremanetan dago hainbat antolakunde, elkarte, enpresa eta bestelako erakundeekin mugikortasun seguruaren mezua gogorarazi eta elkarrekin sustatzeko.

Gomendatutako jarduerak

1. Mugikortasun seguruaren inguruko edozein udal-sailek edo zerbitzuek proposatutako jarduerak babestu eta bultzatzea.
2. Udalak antolatzen dituen edo udal-instalazioetan ospatzen diren ekintza guztietan mugikortasun seguruari buruzko jarduerak edo hausnarketak eranstea.
3. Egoitza udalerrian duten enpresak bultzatzea beren enplegatuekin mugikortasun segurua landu dezaten, errepideko lan-arriskuen prebentzioarekin, enpresaren mugikortasun planekin edo bestelako jarduerekin.
4. **Udalerrri osoan mugikortasun jasangarri, seguru eta osasuntsuaren astea ospatzea modu transbertsalean.**
5. Udal-langileei mugikortasun seguruan prestakuntza ematea, beren ohiko helburu, programa eta jardueretan ekintza errazak txerta ditzaten.
6. Udal-langileei errepideko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza ematea. Laneko arriskuen prebentzioko prestakuntza derrigorrezkoa da. Lan-istripu gehienak eta laneko heriotza ia guztiak in itinere gertatzen dira (etxetik lanera edo lanetik

etxerako bidean) edo misioko heriotzak dira (lan-orduetan egindako leku-aldatzeetan). In itinere istripuen eta misioko istripuen prebentzio-ikastaroak ekintza zehatz bat dira eta oso gomendagarria da horrelakoak egitea lantoki guztietan.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: [prebentzioa udalerrri mailan](#).

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Errepideko laneko arriskuen prebentzioari buruzko urrutiko ikastaroa.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Toki-administrazioetako pertsona guztiei zuzendua.
- Jarduera honen helburua da trafiko-istripuetan hiltzen diren erakunde publikoetako langileen kopurua jaistea.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Espazio publikoa:



Ingurumena

Sail honek mugikortasuna lantzen du ingurumenaren jasangarritasuna eta zaintzaren ikuspegitik. 21 Agenda errotuta dago udalerrri gehienetan eta, hari esker, mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak martxan jarri dira. Ekintza horiek udal-plan gehienetan bilduta daude.

Mugikortasun jasangarriaren inguruan proposatutako helburu asko mugikortasun seguruarenak ere badira. Izan ere, ibilgailu pribatuaren erabilerak behera egiterakoan istripu larriak jasateko probabilitateak ere behera egiten du. Hala ere, bizikleta bezalako garraibide alternatiboen erabilera sustatzeak ez du berez mugikortasuna seguruago bihurtzen. Horretarako, beste ekimen batzuk egin behar dira errepideko erabiltzaileak arriskuez jabetu daitezen eta horiek ezagutu eta saihestu ditzaten, edozein garraibide erabiltzen ari direla ere.

Mugikortasun segurua eta ingurumena?

Horregatik, ezinbestekoa da mugikortasun jasangarria terminoari seguru adjektiboa gehitzea.

Bi aldagai hauek ezin ditzakegu banandu, eta, ondorioz, mugikortasunaren ardura duen pertsonal teknikoak edo zinegotziak ez luke inoiz esan beharko: “ni jasangarritasunaz arduratzen naiz, segurtasuna

Udaleko jasangarritasun-jarduerentzako parte-hartze markoa oso egokia da, irizpide berdinak jarraituz, mugikortasun segurua sustatzeko estrategiez hitz egin, eztabaidatu eta proposamenak egiteko.

Gomendatutako jarduerak

1. Mugikortasun seguruari buruzko jarduerak eta hausnarketak txertatzea mugikortasun jasangarriari buruzko ekintza guztietan.

Agendaren 21 en esparruan egiten diren jardueretako askok mugikortasun segurua lantzeko balio dezakete, bereziki osasunari eta ingurumenari kalte egiten dioten arriskuak gutxitzeko egiten diren sentsibilizazio-ekintzek.

Era berean, mugikortasun seguruak beste hainbat ideiarekin bat egiten du, hala nola, slow cities mugimenduarekin, hiri hezitzailearekin eta, jakina, haurren hiriarekin.

Susta daitezkeen ekintzen artean, eskolarako bide jasangarri eta segurua daukagu: kotxea alde batera utzita, haurrei autonomia ematen diegu eta eskolako bidean inplikatura dauden pertsona guztiak sentsibilizatzen ditugu gai garrantzitsuen inguruan (norberaren babesa, arriskuaz jabetzea eta istripuen prebentzioa, adibidez).

2. Erronkak eta jarduerak gehitzea Mugikortasunaren Asteari

Aste honen harira udalek sustatzen dituzten ekintzek bizikletarekin eta bidegorrien erabilerarekin izaten dute zerikusia... Ezinbestekoa da ekintza horietan mugikortasun jasangarri eta seguruaren arteko lotura azpimarratzea. Izan ere, kultura-aldaketa lortzeko udalek sustatzen dituzten ekimenetako asko elkarrekin erlazionatuta daude: adibidez, auto pribatu

erabilera gutxitzeak edo car sharing-ak (autoa partekatzeak), berotegi-gasen emisioa txikitzeaz gain, mugikortasuna seguruago bilakatzen du.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerrri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Mugikortasun seguru eta jasangarriari buruzko

Argitalpen hauek Trafiko Zuzendaritzaren eta Ingurugelen arteko elkarlanaren ondorio dira eta 21 Agendaren 4. ardatza (Mugikortasuna) lantzen duten eskoletan erabili dira.

Haurren hiria

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak.

Edukiak: Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa.



■ DOKUMENTUAN SARTU

Mugikortasun jasangarri, seguru eta osasungarria

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak.

Edukiak: Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa.



■ DOKUMENTUAN SARTU

Bizikletan

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak.

Edukiak: Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa.



■ DOKUMENTUAN SARTU

Gurpil biren gaineko mugikortasuna

Hartzaileak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak.

Edukiak: Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa.



■ DOKUMENTUAN SARTU

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Espazio publikoa:



Hirigintza

Hirigintza, Herri-Lan edo Garapen Jasangarriaren sailak espazio publikoa antola dezake udalerraren balio kulturalak eta sozialak kontuan hartuta. Gauza jakina da urbanista asko gogor jardun direla lanean hiri-espazioa antolatzekeo jasangarritasuna, generoen arteko berdintasuna eta segurtasuna bezalako irizpideak jarraituz.

Mugikortasun segurua eta hirigintza?

Hiri-espazioa antolatzerakoan, ardatz nagusi bezala herritarrak dituen lan-ildoari eutsi behar zaio, eta joan-etorri seguruak sustatu behar dira, pertsonen ohiturak, ohiko bideak eta herritarren jokamoldearen logika errespetatuz.

Zentzu honetan, gero eta ugariagoak dira jarraibide erraz eta logikoak jarraituz bide publikoan egiten diren esku-hartzeak: ezkerretarako birak, barandak eskola-inguruetan eta abar. Hala ere, gaur egun ibilgailu pribatua da oraindik protagonista bidea diseinatzerako unean.

Gomendatutako jarduerak

Mugikortasun seguruaren eta bide-segurtasunaren irizpide gehiago erabiltzea espazio publikoaren diseinuan eta planifikazioan. Horretarako, herritarren parte-hartzerako ekimenez balia gaitzke, herritarrei galdetzeko zer behar dituzten espazio publikoa, kalea, bidea eta azpiegiturak erabiltzerakoan.

Egin litezkeen galderak:

- Zer gustatzen zaizue? (estetika)
- Zer komeni zaizue? (erosotasuna)
- Zer da osasuntsuagoa? (iraunkortasuna)
- Zer da seguruagoa? (mugikortasun segurua)

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerrri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Gizarte ongizatea



Gizarte Ongizate edo Gizarte Zerbitzuen sailak gizarte-bazterketa sufritzeko arriskuan dauden kolektiboak laguntza ematen die, eta kolektibo horiek sarritan bide-arriskua pairatzen dute ere.

Mugikortasun segurua eta gizarte ongizatea?

Mugikortasun seguruaren ikuspuntua bereziki gomendagarria da droga-menpekotasunaren laguntza-eta prebentzio-programetan.

Drogak, sendagaiak edo alkohola erabiltzean eragin handia du gidatzeko ahalmenean. Drogenpekoatasuna duten pertsonentzako prebentzio-neurririk eraginkorrenetako bat da substantzia horiek hartu eta beren pertzepzioari eragiten diotenean ez gidatzea.

Gomendatutako jarduerak

1. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak eta tailerrak antolatzea, trafiko istripuak prebenitzeko.
2. Mugikortasun segurua eta honen balioak (autonomiaren garapena, norberaren babesa, ardura eta besteekiko eta nork bere buruarekiko errespetua...) lantzen dituzten tailerrak sustatzea gurasoentzat. Balio horiek bestelako prebentzio-programetan era agertuko dira, transbertsalak baitira.
3. Mugikortasun segurua eta honen balioak lantzen dituzten prebentzio-programak proposatzea

ikasleentzat. Nork bere burua balioesteko eta babesteko printzipio eta balioek droga eta sexualitate arriskutsuko arazoak saihesteko balio dute, eta baita trafiko-istripuak saihesteko ere.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerrri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Deskribatutako tailerretan egiteko jardueren

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak

Hartzaileak: Pertsona helduekin eta adinekoekin sentsibilizazio ekintzak burutzen dituzten hezitzaileak.

Edukiak: Mugikortasun segururako hezkuntzako programazioak.



 **DOKUMENTUAN SARTU**

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Kultura



Kulturak, adierazpen-bide denez geroztik, entretenitzeko, dibertitzeko, salatzeko eta errebindikatzeko balio dezake, besteak beste. Kultura-sailak kultur-agenda programatzen du eta herriko jaiak antolatzen ditu. Balio kulturalak lantzeko testuinguru egokia da, bai errebindikazioaren bitartez eta baita jai-giroko beste ekintza batzuen bitartez.

Mugikortasun segurua eta kultura?

Mugikortasun segurua kultura da, honakoetan oinarritzen delako: kultura-balioetan, norberaren babesaren ideian eta bizitza eta gure nahiz inguruko osasuna balioestean.

Arteak eta mugikortasun seguruak baliabide oso garrantzitsu bat erabiltzen dute: emozioak. Emozioez baliatzea ezinbestekoa da bien kasuan sentsibilizatzeko eta pertsonengan aldaketak eragiteko.

Mugikortasun segurua kultur-aldaketa baten ondorio da eta honakoak erabil daitezke hori lortzeko:

- Musika taldeak.
- Dantza-taldeak.
- Bizitzari, istripuei eta bidaiei buruzko txapelketak.
- Performance-ak eta hainbat motako animazioak
- Argazkilaritza.
- Antzerkia.

Gomendatutako jarduerak

1.- Sentsibilizazio eta prebentzio-kanpainak txertatzea agenda kulturalan. **Gai interesgarrien adibideak: Nola aldatu da udalerria kotxeen inbasioa gertatu zenetik? Zergatik jartzen dugu geure burua arriskuan?**

2.- Belaunaldien arteko jarduerak proposatzea, adinekoekin eta gazteekin, azken 50 urteetan udalerriko mugikortasuna nola aldatu den ikusteko eta horrek izan dituen ondorioak ulertzeko.

3.- Jaietako jarduera ludikoetan arriskuaren inguruko hausnarketari, prebentzioari eta mugikortasun seguruari buruzko jarduerak eta esperimintatzeko jokoak txertatzea.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Kirolak



Kirol-sailak du lidergoa osasunarekin, aisiarekin, ongizatearekin eta kirolarekin zerikusia duten proiektuetan, eta gainera kirol-erakunde eta elkarteetan parte hartzen du. Sail honetan ere mugikortasun seguruaren balioak kontuan izaten dira.

Mugikortasun segurua eta kirolak?

Kirol ekintzak direla-eta, joan-etorri asko izaten dira garraibide pribatuetan (kolektiboak eta ez kolektiboak), asteburuetan batik bat. Kirola egiteko mobilizatzen dira futbol-, saskibalo-, pilota- eta txirrindularitza-klubak, beste askoren artean, amateurak eta profesionalak, haurrak eta helduak. Aukera paregabea da bizitzaren, osasunaren eta istripuen prebentzioari buruz sentsibilizatzeko, bereziki beste erabiltzaile batzuek ere erabiltzen dituzten bide publikoetan praktikatzaren diren kirolen kasuan (adibidez, txirrindularitza).

Gomendatutako jarduerak

- 1.- Autobus-bidaientzako tailerrak eta jarduerak antolatzea, igo eta jaisterakoan istripuak saihesteko eta bidaia osoan zehar gerrikoa eramatearen garrantziaz kontzientziatzeko.
- 2.- Txirrindulariei eta bide publikoa beste erabiltzaile batzuekin partekatu behar duten kirolariei oinezkoekiko elkarbizitza sustatzeko tailer eta errefortzu-jarduerak proposatzea.

3.- Txirrindularitza, triatloia, atletismoa eta gisa horrelako kirol-ikastaroetan mugikortasun seguruaren inguruko gomendio batzuk programatzea.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerrri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Txirrindularientzako argitalpena

Errepedea guztiona da

Hartzaileak: Txirrindulariak, bidea beste ibilgailuekin partekatzen dutenak.

Edukiak: Aholku-gida, oinezko, txirrindulari eta gidarien arteko beharrezko elkarbizitzaz sentsibilizatzeko..



- 📄 **DOKUMENTUAN SARTU**
- 📄 **BIDEOETAN SARTU**



+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Hezkuntza



Ikastetxeak seme-alabak dituzten familientzako ardatz egituratzailea dira eta herritarren interesa pitz dezaketen hainbat gai tratatzen dira bertan.

Mugikortasun segurua eta hezkuntza?

Mugikortasun segurua landu egiten da eskoletan:

- Ikasgai askotan, maisu-maistrek eta irakasleek mugikortasuna aipatzen dute, eguneroko bizitzako gai bat baita.
- Udalerrri batzuetan, udaltzainak eskoletara joaten dira esku-hartze tekniko zehatzak egitera.
- Eskola Agenda 21i atxiki zaizkion eskolek mugikortasuna (4. ardatza) lantzen dute eta segurtasunaren gaia jorratzen dute, beste hainbat punturen artean. Eskola Agenda 21ek, Ingurugelek koordinatuta eta gidatuta, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren laguntza dauka mugikortasunaren ardatza lantzen duten ikastetxeentzat.
- Udalerrri askok eskolarako bidea eta pedibusa bezalako jarduerak antolatzen dituzte Guraso-Elkarteekin, eskolekin eta jasangarritasun-sailarekin batera.

Gomendatutako jarduerak

- 1.- Udaltzaingoak emandako mugikortasun seguruko ikastaroak bultzatzea.
- 2.- Mugikortasun segurua Eskolako Agenda 21 proiektuaren 4. ardatzeko jardueretan integratzea.
- 3.- Mugikortasun jasangarria integratzea pedibusa, eskolarako bidea eta tankerako ekimenak indartuz.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: [prebentzioa udalerrri mailan](#).

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Ikastetxeentzako baliabideak

Segidan maisu-maistra eta irakasleentzako prestatutako baliabideak zerrendatuko ditugu, udalek, eskolekin egiten dituzten elkarlanen bitartez, susta ditzaketela uste dugulako.

Haurren hiria

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak.



DOKUMENTUAN SARTU

Bizikletan

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak.



DOKUMENTUAN SARTU

Mugikortasun jasangarri, seguru eta osasungarria

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak.



📄 DOKUMENTUAN SARTU




HONETAN ERE... SEGURU - Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako ikasleak.



📄 DOKUMENTUAN SARTU



HONETAN ERE... SEGURU - Mugikortasun Segururako jarduerak Gorputz Hezkuntzako curriculumean.

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako ikasleak.



📄 DOKUMENTUAN SARTU



Gurpil biren gaineko mugikortasuna

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak.



📄 DOKUMENTUAN SARTU



HONETAN ERE... SEGURU - Mugikortasun segururako jarduerak Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguerako curriculumean

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako ikasleak.



📄 DOKUMENTUAN SARTU



HONETAN ERE... SEGURU - Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.




📄 DOKUMENTUAN SARTU



HONETAN ERE... SEGURO - Mugikortasun segururako jarduerak Natur Zientzietako curriculumean

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.



■ DOKUMENTUAN SARTU

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak

Hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako hezitzaileak.



■ DOKUMENTUAN SARTU

MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA: tutoretzarako aukera

Hartzaileak:

Lehen eta Bigarren
Hezkuntzako
tutoreak.



■ DOKUMENTUAN SARTU

HONETAN ERE... SEGURO - Mugikortasun Segururako jarduerak Gorputz Hezkuntzako curriculumean.

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.



■ DOKUMENTUAN SARTU

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak

Hartzaileak:

Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzako
eta Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza
Ondorengoko
hezitzaileak.



■ DOKUMENTUAN SARTU

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Gazteak eta aisialdia



Trafiko-istripu larriak dira gazteen arteko lehen heriotza-kausa gaur egun, eta aisialdi-guneek prebentzio-lana egiteko aukera aparta dira.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren III. Gazte Planaren helburu dira 2020rako trafiko-istripuetan hiltzen diren gizonezko gazteen (15-29 urte) kopurua jaistea eta garraio publikoaren erabilera sustatzea kolektibo horretan.

Aisialdi- eta dibertsio-guneek aukera ematen dute eguneroko arazoez hitz egiteko eta elkarrekin egunerokotasuna hobetu eta seguruago bilakatzeko proposamenak egiteko.

Udalerrri askok dituzte aisialdi-programak, zentro irekiak eta haur eta gazteentzako ekintza zehatzak.

Jarduera horiek batzuetan aisialdi-jarduerak antolatzen dituzten kanpoko enpresen esku uzten dira. Hala ere, gai horren ardura duen pertsonal teknikoak eta zinegotziak ezartzen dituzte kontratazioarako oinarriak eta baldintzak. Baldintza horien artean, komenigarria da mugikortasun segururi buruzko lana txertatzea.

Mugikortasun segurua eta gazteak eta aisialdia?

Mugikortasun seguruaren oinarria aldaketa kulturala eragiteko balioetako hezkuntzan datza, eta ezaugarri horregatik oso egokia da giro informaletan lantzeko.

Gazteekin egiten den aisialdia eta jarduerak gehiago saiatzen dira balioak transmititzen ezagutzak transmititzen baino.

Jarduerak kalean egiten dira askotan, eta kale eta errepideetatik ibiltzea dakarte, taldean, oinezko ala txirrindulari bezala.

Begiraleak eta dinamizatzaileak arrisku-adineko gazteak izaten dira, eta beraz horien sentsibilizazioaren ondorioak biderkatu egiten dira.

Gomendatutako jarduerak

1.- Prebentzio-jarduerak programatzea.

Mugikortasun seguruko hezkuntza-ereduarekin lortu nahi dugu: gaztea bere emozioez jabetzea; erabaki propioak hartzeko gauza izatea, taldearen presioa kudeatuz; bere inguruan gertatzen denaz ohartzea, arrisku eta kalteberatasun-terminoetan interpretatzea (hau da, eragin dezakeen mina eta horren aurrean egin daitekeena ulertzea) eta erabaki seguruak hartzea, bai berarentzat eta baita bere inguruan daudenentzat ere.

Talde baten parte sentitzea, norberaren identitatea sortzea eta norberaren lekua aurkitzea gazteen eta nerabeen bizitzaren parte garrantzitsua dira. Izaera formatzen den aro honetan, taldearen presioak garrantzi handia du. Presio hori identifikatzeak eta erabakiak hartzeko bitartekoak edukitzeak gazteei lagun diezaieke bizitzeta eta osasuna mantentzen.

Taldearen presioa lantzeko proposamena hainbat ekintzatan gauzatu daiteke. Horiek taldeko jarduerak izan daitezke, hala nola, tailerrak, hitzaldiak, zine foruma, eztabaidak eta abar, eta formalak edo

informalak izan daitezke. Bestalde, elkarriketa indibidualak izan daitezke, kalean edo parkean, edota esku-hartze indibidualak.

Azken finean, udalak sustatzen dituen gazteentzako jarduera guztietan landu daiteke mugikortasun segurua.

2.- Gai honen inguruko hausnarketa eragiten duten jarduerak sustatzea gazteen artean, eta hori egiteko gauza diren profesionalak hautatzea lehiaketetan. **Jakina, helburua ez da hitzaldiak antolatzea, berdinen arteko hausnarketa eta eztabaida sustatzea baizik.**

3.- Arriskuen prebentzioko hitzaldietan mugikortasun segurua txertatzea: droga-kontsumoa, bullying-a, sexu-jokabide arriskutsuak, sare sozialetako arriskuak eta abar. **Askotan, errazagoa eta eraginkorragoa da mugikortasun seguruaren alderdi zehatzak dagoeneko existitzen diren jardueretan txertatzea, adibidez prebentzioari buruzko hitzaldietako programetan.**

Ez da beharrezkoa ekintza oso luzeak antolatzea mugikortasun segurua bakarrik lantzeko. Oso naturala eta eraginkorra izan daiteke balio eta jardura zehatzak txertatzea udalerrian dagoeneko egiten diren programetan, hala nola, mugikortasun jasangarri eta seguruaren astean, aste osasuntsuan edo kirol-ekintzetan (bereziki joan-etorriak egitea eragiten dutenean edo bideko arriskua dutenetan, txirrindularitza-probetan edo kart-etan bezala).

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerrri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.

Hautaketa prozesuetan baldintza bezala jartzeko edo gomendatzeko ikastaroak antolatzea aisialdiaren profesionalentzat.

Trafiko Zuzendaritzak mugikortasun seguruaren eta honen transmisioaren inguruko ikastaroak eskaintzen ditu aisialdiaren profesionalentzat. Udalak ikastaro hauek susta ditzake edo horietan parte hartu duten profesionalei lehentasuna eman diezaieke gerora udalerrian lan egin nahi badute.

Aisialdirako argitalpena

Aisialdirako eta mugikortasun segururako jarduerak

Hartzaileak:

Aisialdiko begiraleak



DOKUMENTUAN SARTU



+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Adinekoak



Udalerri guztiek ez dute adinekoen arduratzen den zinegotzigo bereizirik, baina guztiek egiten dute lan kolektibo honi zerbitzuak emateko. Adinekoak biztanleriaren parte handi bat hartzen dute, eta are handiagoa izango da parte hori etorkizunean. Gainera, beren mugikortasun ezaugarri zehatzengatik arriskuko kolektiboa dira.

Mugikortasun segurua eta adinekoak?

Geroz eta urte gehiago bizitzea gauza zoragarria da, bereziki modu aktiboan egin badezakegu. Zahartze-prozesuak, alabaina, arrisku batzuk dakartza, bizitzaren erritmoa eta jarduerak aldatzen eta gutxitzen baitoaz. Zaila da batzuetan hori onartzea.

Egun gure udalerrietan geroz eta adineko gidari eta oinezko gehiago daude. Zenbaitetan, istripuak izan ditzakete eta horietatik errekuiperatzeko arazoak izan ditzakete.

Adinekoek denbora dute prestakuntza-jardueretarako, baina batzuetan zaila izaten da haiekin tratatzea eta prestatzaile edo dinamizatzaile adituak behar dira emaitzarik ikusi ahal izateko.

Udal askotan, Udal Planaren baitan, udaltzaingoa izaten da adinekoen prestakuntza-jarduera garrantzitsu hauek betetzen dituen. Hala eta guztiz ere, eguneko zentroetako, egoitzetako edo adinekoak hartzen dituzten beste zentroetako dinamizatzaileek ere parte har dezakete lan horretan.

Gomendatutako jarduerak

- 1.- Udalak antolatzen dituen edo udal-instalazioetan ospatzen diren ekintza guztietan mugikortasun seguruari buruzko jarduerak edo hausnarketak txertatzea.
- 2.- Ohiko programetan (segurtasuna lapurretetan, iruzurrak, mirarizko produktuak eta abar) udaltzaingoa emandako mugikortasun seguruako tailerrak txertatzea.

Zer baliabide daude nire eskura?

Mugikortasun seguruari eta giza faktoreari buruzko ikastaro erdipresentziala: prebentzioa udalerri mailan.

- Trafiko Zuzendaritzak antolatutakoa.
- Beren jarduera-esparruetan (hezkuntza, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, droga-menpekotasunaren prebentzioa eta abar) mugikortasun segurua garatzeko gomendioak martxan jarri ditzaketen toki-administrazioetako pertsonal teknikoari zuzendua dago ikastaroa.


Adinekoentzako baliabideak

Trafikoak ez dezala zure bizi-kalitatean eraginik izan

Hartzaileak:
Adineko pertsonak.



■ **DOKUMENTUAN SARTU**



+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Herritarrak:

Segurtasuna



Sail honen lehentasuna segurtasun publikoa izan ohi da. Udalerri mailan, trafikoaz eta bideko segurtasunaz arduratzen da sial hau, udaltzaingoaren bitartez.

Mugikortasun segurua eta segurtasuna?

Udaltzaingoak mugikortasun segurua lortzeko hezkuntzan parte hartzen du zenbait udalerritan.

Geroz eta gehiago dira ikasgeletan eskolak emateko prestatzen diren udaltzainak, ikasleei zuzendutako bideko segurtasunari buruzko saioetan parte hartzeko. Esku-hartze hau egokia da, udaltzainak aditutzat baitauzkate ikasleek bideko segurtasunaren eta mugikortasun segurua lortzeko hezkuntzaren alorretan.

Gomendatutako jarduerak

1.- Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza.

Udaltzain asko 3 eta 12 urte arteko neska-mutilekin hasi dira lanean. Badago uste oker bat: umeei balio eta jarrerari buruzko hausnarketak txikitatit egiten hasten bagara, horiek errotuta geratuko direla eta bizitza guztian zehar kontuan izango dituztelako ustea, hain zuzen ere. Ez dugu horren bermerik, ordea.

Errealitatea aztertzen badugu, ohartuko gara zenbaitetan oso gazte gineneko kontu batzuk gogoratzen ditugula, eta beste batzuetan ez dela horrelakorik gertatzen.

Mugikortasunari dagokionez, gomendagarria da lehen lerroan egitea lan, oraintxe bertan arrisku-egoeran egon eta istripu larri edo hilgarriak paira ditzaketen pertsonekin zuzenean. Begien bistakoa da adingabeak helduen babespean mugitzen direla bizitzaren aurreneko urteetan, eta esku hartzeko unerik interesgarriena modu autonomoan mugitzen hasten direnekoa dela. Horrexegatik, are garrantzitsuagoa da DBH eta Batxilergoko ikasleen geletara joatea, bizikleta bezalako ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonak direlako, motordun ibilgailuen aurre-gidariak direlako eta askotan era berean oraindik gazteak diren beste adiskideekin ibilgailuetan ibiltzen direlako, bidaiari bezala.

Gure aholkua da, udaltzaingoak eskoletan esku hartzeko programa bat egiten duenean, lehentasuna gazteei ematea, ondoren era autonomoan mugitzen diren haur gazteagoekin lan egitea eta amaitzeko, denborarik bada, txikienekin jarduerak antolatzea.

2.- Ikasgeletan, mugikortasun segurua lantzeko jarduera osagarriak ezartzea, gai horretan aditua den pertsona bezala.

Udaltzainak ez dira maisu-maistrak, eta hortaz ez lukete maisu-maistren gisako eskolarik eman behar. Ikasgela batera seinaleak azaltzera joan eta ikasleei trafikoari buruzko marrazki bat egiteko eskatzea ez da oso eraginkorra. Edozein irakaslek lantzen ditu trafikoa edo seinaleak ikasgelan noizbait, eta ikasleen bizitzako beste edozein gai bezala landuko du, hau da, testu-liburuetakoa ariketa sinpleak eginez mugikortasunaren inguruan.

Udaltzainek, ordea, badute aukera ikasgelan ekintza txundigarriak egiteko, irakaslea egiten ausartzen ez den ekintzak, alegia, mugikortasunean aditua den polizia batek proposa ditzakeen ekintzak.

3.- Eguneroko mugikortasunean arazorik izanez gero, herritarrek poliziarengana jo behar dutela gogoraraztea.

Udalerrian mugitzen diren pertsonetik harremana prestakuntzarako aukera ezin hobe da. Urteak dira alkoholaren, abiaduraren eta abarren arriskuen inguruko kanpainak egiten hasi zirela. Hala ere, udaltzainak beren sentsibilizazio-lanetarako ondo prestatuta badaude, gaitzespen baino galdera gehiago egingo dituzte herritarrekin dituzten elkarrizketetan, asertzio-tonua erabiliko dute tonu agresiboa baino, eta abar.

4.- Beste arrisku-kolektibo batzuekin esku hartzea.

Udaltzain batzuek, eskolez gain, arriskuan dauden beste kolektiboak ere bisitatzen dituzte, adinekoena nagusiki.

Bukatzeko, poliziek erraz esku har dezakete erditzea prestatzeko ikastaroetan, haurrak lotzeko sistemen erabilera azaldu eta sustatzeko.

Zer baliabide daude nire eskura?

Trebatzaileak prestatzeko ikastaroak.

Arkauteko Polizia-ikastegiak prestakuntza-ikastaroak antolatzen ditu urtero, honakoak behar edo nahi dituzten udaltzaingoetako prestatzaileak prestatzeko:

- Poliziaren hezkuntza- eta
- sentsibilizazio-funtzioan sentsibilizatzea. Mugikortasun segururako eskola-saioak prestatzen ikastea.

Egin beharreko jardueren proposamena.

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak

Hartzaileak: Hainbat kolektiborekin sentsibilizazio ekintzak burutzen dituzten hezitzaileak.

Edukiak: Mugikortasun segururako hezkuntzako programazioak.



■ DOKUMENTUAN SARTU



+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

06. Zer beste baliabide daude nire eskura?

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak hainbat baliabide jartzen ditu udalerrien eta mugikortasun seguruan inplikatur dauden agenteen eskura. Webgunean aurkituko dituzu, besteak beste, istripuen inguruko datu estatistikoak, prestakuntzarako proposamenak eta erabil daitezkeen materialak.

www.trafikoa.eus



Era berean, Trafiko Zuzendaritzak hainbat kolektibori zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak antolatzen ditu, horietako batzuk udalekin elkarlanean. Honakoei zuzendutakoak dira bereziki aipatu beharrekoak:

- Hezkuntza-sistemari.
- Adinekoei.
- Biztanleei, oro har.

Hezkuntza sistema

Gerta dakizuke / Te puede pasar

Nori zuzendua: DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleei

Formatua: Hitzaldia

Non: Ikastetxeetan.

Iraupena: 90 minutu

Bizkarrezur-muineko lesioa duen pertsona baten testigantza, errepideko arriskuen inguruko hausnarketa sustatu eta trafiko-istripuek eguneroko bizitzan izan ditzaketen ondorioei buruzko kontzientziazioa indartzeko helburuarekin.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Norabide guztiak / Cambio de sentido



Nori zuzendua: DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei

Formatua: Antzerkia

Non: Ikastetxeetan (50 pertsona saio bakoitzeko gehienez)

Iraupena: 3 ordu

Oraindik gidari ez diren baina ibilgailuak era autonomoan erabiltzen hasi diren edo laster hasiko diren artean bideko arriskua dakarten jarrerak

prebenitu eta kontzientziatzeko egindako taldeko antzerki pedagogikoa. Gauaz ateratzen hasten dira pertsona hauek, eta askotan beren eta inguruko segurtasunean eragina izan dezaketen erabakiak hartu beharrean egoten dira.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873



BIDEA

Road Show



Nori zuzendua: 16

eta 18 urte arteko gazteei (Batxilergoko eta Lanbide-Prestakuntzako ikasleak)

Formatua: Antzerkia

Non: Udalerriaren kultur-espazioetan (antzerkiak, kultura-gelak eta abar)

Iraupena: 90 minutu

Gazteak trafiko-istripuen inguruan sentsibilizatzeko ekintza. Horretarako, parrandan atera eta trafiko-istripu batean nahasia suertatzen den gazte baten istorioa kontatzen da. Emankizun multimedia baten bidez egiten da hori, eta hainbat testigantza (poliziararena, 112ko osasun-langileena, suhiltzaileena, biktimaren senideena eta bizkarrezur-muineko lesio sufritzen duen biktimarena) eta soinu inguratzaile eta irudi txundigarriekin nahasten dira.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Adinekoak

Harrapatzei buruzko gogoeta / Reflexionemos sobre los atropellos

Nori zuzendua: 64 urtetik gorako pertsonak
Formatua: Hitzaldia
Non: Adinekoen elkarteetako zentroetan
Iraupena: 60 minutu
Adinekoak harrapatzeen, horien ondorioen eta prebentziorako babes-neurrien inguruan sentsibilizatzeko ekintza.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

dituzten jarduera eta ekintzak babesten ditu. Horretarako, bi kamioi eta erabilera anitzeko espazio izan daitezkeen bi karpa dauzka, jarduera motaren arabera erabil daitezkeen altzari eta bozgoragailuekin hornituta.

+ Informazio gehiago hemen:

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza
bidehezkuntza.trafiko@euskadi.eus
945 018873

Biztanleak oro har

Seguru
baietz! /
Sí, seguro



Nori zuzendua: EAEko udalak edota mugikortasun seguruarekin lotuta dauden jarduerak sustatzen dituzten kolektiboak.

“Seguru baietz / Sí, seguro” lelopean, Trafiko Zuzendaritzak mugikortasun seguruarekin lotuta dauden eta hainbat agente sozialek antolatu





2015eko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Segurtasun Saila



Koordinazioa:

M^a Jesús Iturralde eta Martín Gil



Diseinua eta maketazioa:

Diagonal Comunicación 360°



Argazkiak:

Eusko Jaurlaritzaren Mikel Arrazola/Trafiko
Zuzendaritzaren irudien artxiboa





UDALERRIA ETA MUGIKORTASUN SEGURUA

SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK
ETA BALIABIDEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuor detza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

